

Hitzak aski ez direnean, HITZEKIN beharko dugu 22. KORRIKArekin batera

KORRIKAren 22. edizioa hasteko bi aste baino falta ez direnean, ehunka herri eta auzotan Korrika Batzordeak lanean ari diren honetan, **Iruñean egin da aurtengo edizioaren lehendabiziko KORRIKAren Aurkezpen Soziala, Nafarroako Antzerki Eskolan** (Bilbon heldu den astean egitekoa da, 24an). Lekuko erraldoiak Amurrion bidaiatu du Garestik martxoaren 10ean, furgonetak prest daude, hasiera eta bukaera ekitaldietako egitarauak zabaltzeko prest... KORRIKA hastea baino ez da falta.

KORRIKAren spotarekin ekin dio ekitaldiak arratsaldeko 19:00etan, eta **Laura Villanueva aktoreak** hartu du aurkezteko ardura. Ikasle batek eta irakasle batek osatutako bikoteak hartu du lekukoa gero, eta AEKren bizidekarrean aritu dira KORRIKAK beste edizioetan ekarri dizkien bizipen eta sentimenduen haritik tiraka, haiek direlako AEKren hauspoa. **Aitziber Balantzategi AEK-ko Artezkaritza kideak** hartu du ondoren hitza, **60tik gora gonbidaturen** aurrean (erakundeetako ordezkariak, jendarte-eragileak...), eta besteren artean KORRIKAren bi helburuek oso presente dirautela nabarmendu du: «euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta AEKren eguneroko jardunerako dirua biltzea».

Aurtengo abestiaren bideoklipa ikusi dute gonbidatuek, eta **Asier Amondo 22. KORRIKAren arduradunak** egin du bigarren hitzartzea. «Gogoia eta ilusioa» aipatu ditu, eta horren adibidetzat jarri du Korrika Laguntzailearen figurak 9.000 kide baino gehiagoren babesa jaso duela, eta 11.000 gaintitza ere espero dela. Herri bat zain dagoela esan du, KORRIKArekin maiteminduta dagoen herri bat, euskararen gogoia lau haizetara zabaldu nahi duena.

Lasterka, arineketan, antxintxika... KORRIKA hastea baino ez da falta. Amurriotik Donostiara. Martxoaren 31tik apirilaren 10era. 2.575 kilometro. Korrika.